

Mugak III
Donibane-Garazi (Itzal aktiboa)
Uria - 2014 |

Mugak III
Angelu (Beatrix Enea)
Martxo - 2015 |

Mugak III
Senpere (Larraidea)
Uztaila - 2015 |

Mugak III

Titto Aguerre

Titto AGUERRE (Uhart-Garazi, 1974) « Mugak » izenburupean datozen 3 zizelketa erakusketa ezberdinen lehenaren aurkeztera heldu zaigu. Bizkorgarriak, nahitarakoak eta zorrotzak diren forma geometrikoz osatutako barne-barneko zizelketa ; gure begirada aldaratzeko, materien eta hutsen arteko elkarrizketek, zurez, altzairuz, aluminioz, kobrez, alabastroz edo paperez egin obren barna eramanen gaituzte.

Erakusketa irekirik egonen da 2014ko urriaren 4tik 19ra, ostiral, larunbat eta igande arratsalde 15:00-18:00 bitarte.

*Estreinaldia : 2014ko urriaren 3an, ostiralez, 18:30etan.
Maddi ZUBELDIA-ren emanaldia, Antton ARRIZABALAGA-k pianoan lagundurik.*

Titto AGUERRE (Uhart Cize, 1974) ouvre une série de 3 expositions différentes de sculptures, « Mugak - Limites ». Une sculpture très intimiste construite autour de formes géométriques rigoureuses, volontaires et toniques ; des conversations de matières et de vides qui décalent notre regard à travers des œuvres réalisées sur bois, acier, aluminium, cuivre, albâtre ou papier.

Ouverture au public de l'exposition du 4 au 19 octobre 2014, le vendredi, samedi et dimanche après-midi de 15h00 à 18h00.

*Vernissage : Le vendredi 3 octobre 2014, à 18h30.
Interprétation de Maddi ZUBELDIA accompagnée au piano par Antton ARRIZABALAGA.*

Laguntzaileak | Partenaires :



Argazkiak | Photos : Patxi Laskarai

2014ko urriaren 4tik 19ra
Du 4 au 19 octobre 2014

GALERIE DACOSTA GALERIA
Zitadelaren karrika, 22 - 22, rue de la Citadelle
64220 DONIBANE-GARAZI - ST JEAN PIED DE PORT

Observer les éléments naturels, les matières. Les observer avec insistance. Aller chercher la veine de la matière, appréhender sa vérité et ses limites, et déloger la forme cachée. Chercher pour découvrir, pour se (re)découvrir ; on finit toujours par découvrir quelque chose. Découvrir qu'une intention graphique peut s'accorder avec plusieurs matières. Rechercher et travailler plusieurs séries et pièces à la fois. Marcher, puis s'arrêter, puis revenir plus tard et marcher encore. Rechercher non pas ce que l'on voit au premier abord, mais rechercher ce que l'on peut voir à travers la matière, avec un souci du langage simple qui renvoie chacun à sa propre réflexion.

Chaque sculpture résulte d'une série de décisions. Chaque décision façonne le résultat, avec un aspect irréversible dès lors qu'on enlève de la matière ; on ne peut pas revenir en arrière. C'est en ce sens que la sculpture a quelque chose de vertigineux.

Je pratique ce mode singulier d'expression qu'est la sculpture, et j'ai décidé de la mettre en partage. C'est une expérience profonde et complexe, un état particulier de conscience, une mise en situation de grande réceptivité. Sculpter c'est donner du sens à la forme, à la nature et à l'humain, voir à travers la matière, voir à travers soi, puis voir de manière élargie comme pour sonder les profondeurs de l'humanité.

Dans notre rapport à la nature et au monde, qu'elles soient physiques ou psychiques, les limites sont omniprésentes. On n'en finit pas de rôder autour.

Contraignantes ou pas, mais toujours structurantes, les limites réelles ou selon l'idée qu'on s'en fait, sont à la fois le début et la fin, le possible et l'interdit, protectrices ou aliénantes. Par nature ambiguës, à la fois les limites empêchent, parce qu'elles interdisent, mais paradoxalement elles permettent, parce que précisément elles interdisent.

Évidentes ou non, les limites sont en nous, pour l'essentiel d'entre elles.

TTITTO AGUERRE

MATIÈRES

Alabastroa : Albâtre.
Altzairua : Acier.
Aluminioa : Aluminium.
Ezki : Tilleul.
Haritza : Chêne.
Inprimaketa paperean :
Impression sur papier.
Iroko : Iroko (bois exotique).
Kobrea : Cuivre.

« Aberriaren mugak, euskararenak
gure baitan daude gehienak
euskara zabalduaz lau haizetara
zabalago egiten gara »

Hitzak : Joserra Gartzia
Musika : Txomin Artola

TITRE DES ŒUVRES

Aiako Harria : Les trois couronnes.
Elkarmenpekotasun : Interdépendance.
Elkarrekikotasun : Réciprocité.
Il daska : Cannelure.
Ilargipe : Au clair de lune.
Izengabea : Sans titre.
Larrun : La Rhune.
Maitagune : Espace-amour.
Mugalde : Frontalier.
Mugarri : Jalon.
Sakaila : Entaille.
Xuxurla : Murmure.
Zurbeso : Colombage.

Naturari beha egon, materiak begiratu. Begiratu sakon. Materiaren zainaren bila joan, bere egia eta mugak sesitu, eta gordea den forma argitarat ekarri. Materia miatu, (hel)burua berriz aurkitzeko. Beti zerbait aurkitzen da. Intentzio grafiko bakoitza, materia ezberdinekin bat etorri daitekeela aurkitu. Miatu, eta sail eta pieza ezberdinak batera landu. Ibili, gelditu, eta ondotik berriz ibili. Miatu, ez lehen begiradan ikusten dena, baina materialiaz haratago ikusten dena, hizkuntza ahalik eta arruntenean, norbera bere gogoeten jabe jartzeko.

Zizelketa bakoitza, erabaki andana baten ondorioa da ; hartutako erabaki bakoitzak emaitza moldatzen du. Gauzek itzulbiderik ez dute, materia behin-betiko kentzen delarik ; ez da berriz gibelka etortzen ahal. Zentzu horretan da zizelketa burtzoragarria den barne-barneko esperientzia.


Espresio modu berezia den zizelkaritza praktikatzen dut, eta honen partekatzea erabaki dut. Barnakorra eta konplexua den esperientzia bat da, kontzientzia egoera berezi batean murgilduta, zure burua egoera ezinago harkorreat jartzea erabakitzen duzun pundutik. Zizelkatzea, formari, naturari eta gizakiari zentzu ematea da, materialiaz eta norberaz haratago ikusten ahalegintzea, eta zabal ikusten ahalegintzea gizadiaren sakontasuna galdezkatzeraino.

Naturarekin eta munduarekin dugun gure hartu-emanean, fisikoak edo psikikoak diren mugak egun orotakoak dira. Mugen inguruan itzulginguruka ibiltzeak ez du etenik.

Hertsagarriak edo ez, baina beti egituratzaileak, errealak edo irudikatutako mugak, aldi berean hasiera eta bukaera dira, posible dena eta debekatutakoa, gerizatzaile edo kontra jartzaile. Jatorriz zentzu bikoitzekoak dira mugak, aldi berean mugatzaile, debeku direlako, baina paradoxakoa bada ere, baimen ere dira, justuki debeku direlako.

Begi bistakoak izan edo ez, mugak, gure baitan daude gehienak.

TTITTO AGUERRE



Titto Aguerre-ek (Uharte-Garazi, 1974) ez du bere burua Eskola baten kide jotzen.

Bere obra, bizkorgarriak, nahitarakoak eta zorrotzak diren forma geometrikoz egituratzen da.

Erakusketa irekitzen du zurean eta burdinean zizelkatutako obra sail batekin, bi materia hauen arteko solasa ilusio bihurtzeko eta gisa horretan gure begirada aldaratzeko.

Bi dimentsioetan gira.

Ber elementu geometrikoak bestela prestatuak, burdinezko birbilkia zuzaren axalean lerratzen da, obraren perspektiba berriz galdezkatzeko.

Eta, beste piezez osatutako sail bat agertzen da, barne-barneko zizelketa bat, materiaren eta hutsen arteko elkarrizketa bat, materiaren aurrean ukan begiradak zizelkariari berari segitu beharreko marra agindu diolarik. Materia bizirik dirauen artistaren barne-barneko pertzepzio horrek, bizidunen behaketan oinarritua, gurekin komunikatzea ahalbidetzen dio.

Haizemale bat zabaltzen den gisara, sailka antolatu obrak bat bestearen ondotik heldu dira, zurez, harriz, altzairuz. Alabastroaz amets egiten du. Harrigarriki, 4 inpresioz osatutako 2014eko azken sailak dena berriz ere haxean ezartzen du : uste ginuen « finkatuak » izatea, « hari onari heltzea, zentratuak izatea » eta hor... beltzez eta xuriz moldatu geometria zeruari buruz irekitzen da lehenik, eta gaketzen, azkenik beharuntz berriz ere irekitzeko (egun horretan).

Zeru eta lur artean zintzilikatzen gaitu.

Guhauren muga ote gira ?
gure buruari jarritako muga ?
hor den muga ? irudikatzen
eta erakusterat ematen dugun
muga ? besteetaz irudikatzen
dugunean ? muga betea, muga
hutsa ? non da barnea, non
kanpoa ?

Bide luzeko gure gogoetetan
maisutasunez uzten gaitu.

NB : Izotz eremuetan, Inuitek,
izadiarekin bat eginda, Inukshuk
batzu eraikitzen dituzte, materia
metaketez eginak, « nehona edo
ezereza » agertu daitekeen ere-
mu horren erdi-erdian, zeru eta lur

arteko zinezko mugarri bihurtuz bidaiariarentzat. Haritzez egindako Kereta horren lekuko da.

ANNE BENOIST KHAYAT

Mugak



Titto Aguerre (Uhart Cize, 1974) ne se réclame d'aucune Ecole.

Son œuvre se construit autour de formes géométriques rigoureuses, volontaires et toniques.

Il ouvre l'exposition avec une série plurielle d'œuvres sculptées sur bois et métal, une illusion d'optique concertée entre ces deux matériaux, qui capte et décale notre regard. On est dans les deux dimensions.

Les mêmes éléments géométriques réorchestrés, le cercle métallique glisse sur la surface du bois et remet en question la perspective de l'œuvre.

Puis émerge une nouvelle série de pièces, une sculpture très intimiste, des conversations de matières et de vides, celles du sculpteur avec son matériau, ce regard, qu'il a porté sur le bloc de bois qui lui a dicté la ligne à suivre. Cette perception intime de l'artiste devant la matière qu'il sait vivante, intuition fondée sur l'observation du vivant, et qui lui permet de communiquer avec nous.

Comme un éventail qu'on déploie, les œuvres sérielles se succèdent, bois, pierre, acier. Il rêve d'albâtre.

Etonnamment, la dernière série 2014 de quatre impressions remet tout à plat : on se croyait « calé », on pensait « avoir suivi le bon fil, être centré » et là... la géométrie des œuvres en noir et blanc est d'abord ouverte vers le ciel, puis se ferme, et finalement s'ouvre (ce jour là) vers le bas. Il nous suspend entre ciel et terre.

Est-on dans notre propre limite ? celle qu'on se donne ? celle qui est ? celle qu'on imagine et qu'on émet ? celle qu'on imagine des autres ? limite pleine, limite vide ? où est l'intérieur, où est l'extérieur ?

Il nous laisse avec maestria à notre réflexion au long cours.

NB : Sur la banquise, les Inuits, très en relation avec la nature, construisent des Inukshuk, empilements de matière, au beau milieu de ce qui peut paraître « le nulle part, le vide », de vrais repères entre ciel et terre pour le voyageur. Kereta fait de chêne en témoignage.

ANNE BENOIST KHAYAT



XUXURLA

Haitzondo nintzeneko oroimenean
Zainetan barna neraman bizia
oraindik ere, oraindik ere,
Xuxurlaka ari da
Zur naizenetik,
gogortu naizenetik, gogortu.

Sutondo nintzeneko oroimenean
garrek miaskaturiko zauria
oraindik ere, oraindik ere,
xuxurlaka ari da
zur naizenetik,
orban beltz naizenetik, mintzo.

Eskuek ikusten nauteno,
Begiek ferekatzen nauteno,
oraindik ere, entzun bezate
ene xuxurla bizia.

Ateburu nintzeneko oroimenean,
kixupean gorderik, itorik,
oraindik ere, oraindik ere
Xuxurlaka ari zait azal lastua,
kixupean itorik, mintzo.

Eskuek ikusten nauteno,
Begiek ferekatzen nauteno,
oraindik ere, entzun bezate
ene xuxurla bizia.

ILDASKA

Bai, banoa
goldeak lursailan
marrastu ildaskan, ildaskan behera.

Bai, banoa,
banoa isurian
zuregana, errekan behera.

Hurbil nauzu, hurbil,
Umil nabil.

Bai, banoa
banoa alorretan,
landetan ero, soroetan zoro.

bai, banoa
banoa etengabe
isurian,
ildoen harian.

Urrun zaitut, urrun,
ez dakit non.

Hitzak eta musika :
Maddi Zubeldia
Pianoan :
Antton Arrizabalaga

MATRILAK ZURIAK

Matrailak zuriak
Begiak kristalezkoak
Haustear begira

Elurtza eta egunsentia
Elurtza eta egunsentia
Gela hertsia eta hondaturik
Argirat...

Hitzak :
Joseba Sarrionaindia
Musika :
Maddi Zubeldia
Pianoan :
Antton Arrizabalaga

HUTSAREN BETEA... LA PLÉNITUDE DU VIDE

Pantxo ETCHEGOIN
Euskal Kultur Erakundeko zuzendaria
Directeur de l'Institut culturel basque

Hitzak hutsak dira ez baldinbadira obrak.

Obrak beteak dira ez baldinbadira hitzak. Artistak ez dauka mugarik, bakarrik dudak : bakardadean pasatzen ditu orenak, egun eta gau ilunak. Argia bilatzen du materien ikusezinean, koloreen harmonian eta jestuen zorroztasunean. Baina hauek hitzak baizik ez dira definitzeko Ttitto Aguerre zizelkariaren lan sakona. « *Mugak* » izeneko lehen erakusketa honek aho bete hortz uzten gaitu, hainbeste materia ezberdinekin gure behakoa pindartzen baitu eta zuzenki gure irudimenari dei egiten, norbera barne gogotetan altxatzeko.

Obra hauei so egitean, hutsak ez diren espazioetan murgiltzen gara, baliteke bilatzen ez genuenaren edireitea, ameslari bihurtzerainokoa.

Ttitto Aguerre artistaren lehen erakusketa da, Itzal Aktiboa elkarte dinamikoak sustatuko duena. Baina gibelean, zenbat eta zenbat lanordu ba ote da, zenbat indar, zenbat beldur, zenbat zorion, zenbat buruhauste eta errauste... zenbat ixiltasun ? Orain ordu da hain zuzen ixiltzeko eta gure begietako mugak gaintzeko.

Esker mila Ttitto egin diguzun opari ederrarentzat eta bidaia on zure ondoko urratsetan.

Les mots sont vides s'ils ne deviennent pas œuvres.

Les œuvres sont pleines et entières si elles ne sont pas que des mots. L'artiste ne connaît pas de limite. Il n'est habité que par les doutes, lui qui traverse des heures, des jours et des nuits d'extrême solitude. Sa quête de la lumière, il la poursuit dans la part d'invisible du matériau, dans l'harmonie des couleurs et l'acuité des gestes. Et les mots ne suffisent pas non plus à décrire la profondeur du travail réalisé par le sculpteur Ttitto Aguerre. Cette première installation, intitulée « *Mugak* » (Limites) ouvre une série de trois expositions différentes de l'artiste. Elle allume des étincelles dans nos yeux par tant de matériaux différents offerts à notre regard, et en appelle directement à notre imagination, soulevant des réflexions en chacun de nous.

L'observation de ces œuvres nous plonge précisément dans les espaces qui ne sont pas vides, nous permettant peut-être d'y trouver ce que nous ne cherchions pas, jusqu'à nous élever vers d'autres pensées.

Il s'agit là de la première exposition de Ttitto Aguerre, soutenue par la dynamique association Itzal Aktiboa de Saint-Jean-Pied-de-Port. Mais derrière ces œuvres rassemblées, saura-t-on jamais combien d'heures de travail, combien d'efforts, de craintes, de joies, d'épreuves et de découragement... Combien de silence ? Justement, il est temps à présent de faire silence et de dépasser les limites de notre regard. Merci, Ttitto, pour ce beau cadeau, et bon vent pour la suite de ton voyage artistique.

ITZAL AKTIBOA

Artista batzuen eta arte plastikoer interesatzen ziren pertsona batzuen eskutik 2004an sortua, Itzal aktiboa elkarteak helburutzat ditu arte garaikidea Euskal Herrian ezagutaraztea, mugaz gaintzeko hartu-eman kulturalen bultzatzea eta sorkuntzarako interesa haurrengan sustatzea. Donibane-Garazin kokatua, Euskal Herriko xoko ezberdinetako artisten obren erakusketak antolatzen ditu elkarteak, artisten parte hartze pedagogikoarekin. Tokiko ikastetxeekin ari da lanean, batez ere euskaraz, erakusketen bisiten antolatzeko tailerrekin batera. Artista gazteak sustengatzen ditu Biurteko saria antolatuz, eta emazte artistetaz ere du axola *L'Art au Féminin/EmazteArtea* Garazin izeneko erakusketa urtero eskainiz.

Fondée en 2004 par un groupe d'artistes et de personnes s'intéressant aux arts plastiques, Itzal aktiboa a pour mission de faire connaître l'art contemporain en Pays Basque, de contribuer à des échanges culturels transfrontaliers et de stimuler l'intérêt pour la création artistique auprès des enfants. Basée à Saint-Jean-Pied-de-Port, l'association organise des expositions d'œuvres d'artistes de différentes parties d'Euskal Herria, avec la participation pédagogique des artistes. Elle travaille avec les écoles locales, surtout en euskara, pour faire des visites des expositions avec des ateliers. Elle appuie les jeunes artistes en organisant un Prix biennal pour la jeune création et dédie une attention particulière aux artistes femmes avec une exposition annuelle, *L'Art au Féminin/EmazteArtea* Garazin.